




LIBURUA

Adiskide bat nuen



ADISKIDEAK GARA? ANABEL FERNÁNDEZ REY

ILUSTRAZIOA: ANABEL FERNÁNDEZ REY
ITZULPENA: MANU LÓPEZ GASENI

PAMIELA, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

Adiskidetasunari buruzko liburua dugu Anabel Fernández Rey idatzi eta ilustratutako hau. Istoria sinplea da, haur eta hartz handi baten arteko harremanari buruzko istorioa. Egileak, mezua hobe helarazteko, jolastu ahal izateko, apropos erabili du animalia pertsonifikatuta bi gizaki jarri beharrean.

Haurrak laguntza eskatzen dio behin eta berriro hartzari. “Ez dut barazkirik jan nahi. Lagunduko didazu zuk, tripontzi horrek?”, “Ezin naiz bakarrik orraztu. Zuk, goitik hobeto ikusten duzunez, lagunduko didazu?” edo “Oso azkar ibili nahi dut. Zuk, bultza egiten dakizunez, lagunduko didazu?”, eta horrela ikusi ahal dugu haurra irribarrez, nahi duena egiten, eta ondoan hartz handia serio, haurrak esandakoak, eskatutakoak, egi-

ten. Irudi sinple eta pastel kolorekoak, suabeak, dira. Detaileetan eta paisaian edo inguruko kontuetan arreta desbideratu gabe, haurraren eta hartzaren arteko ekintzan zentratzen da eta horretara garamatza irakurle-ikusle gisa.

Bi protagonisten arteko harremana, baina, aldatu egiten da une batean. Haurrak bere jostailu guztiak barreiatu dituelarik hartza jasotzen ari denean aurpegi serio baino serioagoarekin. Hurrengo irudian, bi orriak betetzen dituen hitzik gabekoan, hartza pentsatzen azaltzen zaigu, eta handik aurrera bera izango da bere “adiskideari” laguntza eskatuko diona behin eta berriro.

Azkenean, adiskidetasuna bien arteko harremana dela ikusten da, biek eman behar dutela laguna pozik egoteko, bien parte-hartzea behar dela eta

orduan bai, orduan liburuaren izenburuan ageri den galdera ikurrak ez du zentzurik izango.

Istoria sinplea dela aipatu dugu, irudien erabileran, testuan eta kontatzen duen argumentuan, baina sinplea izanda ere badu bere mezu sakona. Haurrek erraz harrapatuko dutena istorioaren nondik norakoetatik eta baita irudietan protagonista bien baitan ematen diren aldaketengatik; are gehiago, mezua hobe ulertzeko nahitaezkoa da hartz handiaren eta mutikoaren aurpegiak aztertzea, egiten dituzten keinuak, transmititzen dituzten mezuak aztertzea. Egileak, ederki lortzen baitu, horien bidez, adiskidetasunari buruzko mezua helaraztea. Eta horretarako nahikoa da liburuaren azalean ageri den ilustrazioa eta amaierakoa konparatzea. ●